

SERIEA | *Lan eta bizi euskaraz (I)*

EGUNEKO GAIA

Ia dena dago irabazteko

Meharra da eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera arautzen duen lege esparrua, «ezdeusak» dira eskakizunak, eta soilik Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara begirakoak; baina badira esperientzia interesgarriak.

Testua **ARANTXA IRAOLA**



Oraindik euskarara ekartzeko dauden unibertsoetako bat da lan mundua. Euskara gehiago erabiltzeko prozesuetan murgilduta dauden enpresa, establezimendu eta entitateak, eremu sozioekonomiko pribatuaren ehundura osora begira, oso gutxi dira: «%1 inguru». Ibon Arrizabalagak eman du datua. Hartu berria du Bai Euskarari elkarteko zuzendaritza: propio euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatu, aitortu eta laguntzen dituen ziurtagiria kudeatzea da, besteak beste, elkarte horren helburua. Esan du ehuneko hori ez dela guztiz zehatza, baina ez dabil oso urruti. Aurrez ere aipatu izan du euskalgintzak datu hori bera. 2020ko azaroan Euskalgintzaren Kontseiluak, ELAk eta LABek bat egin zuten azaltzeko ezinbestekoak direla euskara lan mundura eramateko «neurri eraginkorragoak», eta patronalei proposatu zieten 50 langiletik gorako enpresetan euskara planak bultzatzeko. Izan ere, tankerako planak abiatuta dituzten enpresak «gutxiengoa» dira gaur egun. Orduan eman zituzten datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan «ehun enpresatik bakarrak» du halako bideren bat urratu; Nafarroan %0,7k.

Arrizabalagak uste du azaldu egin behar dela zein den datu apal horien atzean dauden zioetako bat: apenas dauden «araututa» ere-

mu sozioekonomiko pribatuko entitateek euskara sustatzeko bete behar dituzten hizkuntza politikak, eta «ezdeusak» dira eskakizunak. «Eta enpresa askoren motorra zera da: beren negozioa aurrera eramateko horretara behartuta ez badaude, ez dira joango halakoetara».

Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria da Agurne Gaubeka. Bat dator. Lege aldetik agerikoa da gabezia. Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan ez dago inolako hizkuntza eskakizunik eremu sozioekonomikorako, eta «borondate» hutsean oinarrituta egiten dira aurrerabideak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere eskeak apalak izan dira urteotan, eta mugatuak. 2008ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideen Dekretuak enpresa eta establezimendu handien betebeharrak ezarri zituen, oro har. Adibidez, telefonia operadore, garraio publikoko zerbitzu, energia komertzializatzaile eta antzekoei ezarri zitzaizkien betebeharrak, eta produktuak saltzen dituzten enpresa handiei, betiere 250 langile baino gehiago badituzte, eta 50 milioi euroko negozio bolumena. Kreditu erakundeak eta eraikuntza obren sustatzaileek ere badituzte betekizunak.

Baina Gaubekak esan du ez dela sakondu bide horretan. Kontrara: kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak arautzeko Eusko Legebiltzarrean onartu zuten azken legea iazko apirilekoa da, eta hor atzerapausoak daudela ohartarazi du: «Lehen *betebehar* zirenak orain *sustatu* hitzarekin lotu dira». Kezka eragiten dio horrek. «Erregulazioa falta bada, borondateak eta *sustatze* hitzak ezer gutxi egiten

dute». Hausten zail diren kateekin lotzen ditu horrek sarri bezero eta erabiltzaileak. «Ahulago sentitzen dira euskarazko zerbitzua eskatzeko orduan», azaldu du Gaubekak. Eta heltzen zaizkie arlo horrekin lotutako kexak Behatokira. «Adibidez, bezeroek askotan ikusten dute atzerriko hizkuntzak erabiltzen direla, eta euskara ez». Azpikontratazioekin lotuta daude beste kexa asko. «Bertako enpresa askok arreta telefonikoa-eta emateko azpikontratatzeko kanpoko enpresak», azaldu du. Horietako hainbat entitatek berez badituzte euskararen erabilera bermatzeko irizpideak, baina azpikontratutako enpresa horien bidez urratu egiten dituzte.

Eusko Jaurarlitzako Hizkuntza Politika sailburuorde Miren Dobarane onartu du norabidea aldatu dutela arlo horretan, baina argudiatu du beharrezkoa zela: ezarri diren irizpideak gutxitan «betearazi» direla aitortu du, eta, hain justu ere, horregatik bideratu behar direla politika hauek zidor berrietatik. «Konturatu ginen dekretuak egitea oso erraza dela, baina beharbada hori ez zegoela oso ondo lotuta egoera soziolinguistikorekin eta mundu horretan dagoen ezagutzarekin». Dobaranen arabera, Jaurarlitzaren helburu behinena da eremu sozioekonomikoko entitateek sentitzea «balio erantsi bat» dela eurentzat euskararen erabilera areagotzeko prozesuak abiaraztea. «Adierazi nahi diegu euskara kudeatzeko laguntza guk emango diegula, baina ez dela dekretu batek hala agintzen duelako egin behar, baizik eta beren negozioerako ona delako», azaldu du. «Be-



1.269

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIDUNAK. Bai Euskarari ziurtagiriak hiru dira. *Bidean* izenekoa da apalena: 496 entitatek dute. Zerbitzua euskaraz ematen dutenak 456 dira. Maila gorenean daude zerbitzua euskaraz eman eta lana ere hala egiten dutenak: 317 dira. Araban 134 entitatek dituzte; Bizkaian, 180k; Gipuzkoan, 353k; Lapurdin, 135ek; Nafarroan, 163k; Nafarroa Beherean, 28k; Zuberoan, bik.



raz, zera egiten ari gara, euskararen inguruan edozer —jardueratxo bat ere— egiten duten enpresei laguntzen, eta, gero, gonbidatzen». Gehiago egitera gonbidatzen.

Bide horretan, esaterako, *Euskara barra-barra* deitutako egitasmoa defendatu du Dobaranek. Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoak sortutako marka bat da, bereizgarri bat, eta merkataritzan eta ostalaritzan euskara gehiago erabiltzea du helburu. «Establezimendu batean euskaraz ulertzen badute, hori identifikatu egin behar da», argudiatu du Dobaranek. Eta horretan datza, hain justu, egitasmoa. 150 udal sartuta daude hartan, eta esan du administrazioarentzat euskararen ezagutza egiaztatzen duen bereizgarri hori entitate askorekin lehen kontaktua izateko bide bat ere badela: aliatuak bilatzen segitzekoa.

Harrobi diploma ere euskararen aldeko neurriak hartzen ari diren entitateen sarea trinkotzeko sortu zutela esan du Dobaranek, euskararen ezagutza eta erabilera egiaztatzeko ziurtagiriarentzat urratsa egiteko aski gaitasun ez duten enpresak ere erakartze aldera, eskari xumeagoekin. «Era guztietako eskaintzak egin behar dira: askotarikoak. Azkenean, gure egoera soziolinguistikoak hori eskatzen du». *Harrobi* diplomak iaz banatu zituzten lehen aldiz: hamaizapi erakunde pribatuk jaso zituzten.

Bide-erakusleak

Badira euskararen erabilera aurrerapauso irmoak ematea eta horiek egiaztatzea erabakitzen duten enpresak ere. 2000. urtetik

Bai Euskarari elkartaren ekitaldi bat, artxiboko irudi batean.

JUANAN RUIZ / FOKU

martxan dira Bai Euskarari ziurtagiriak, eta, elkarrekin propio lan honetarako emandako datuen arabera, egun 1.269 entitatek dituzte euskararen aldeko konpromisoak egiaztatzen dituzten agiri horiek. Jarraipena egiten dute, konpromiso horiek zenbateraino betetzen diren ikusteko, eta laguntza ematen dute bidean. Jaurlaritzak, berriz, Bikain ziurtagiriak ematen ditu 2008tik: 479 entitateri eman die ordutik.

Hedapen mugatua izanagatik tresna errotuak direla uste du Arrizabalagak: «Ziurtagiriak berme bat dira: kalitate zigu bat, euskararen kalitate zigu bat. Aitortza bat, errekonozimendu bat». Arlo horretan aurrera egiteko zailtasunak ikusten ditu, baina non aurrera egin ere bai. Uste du, adibidez, arnaguneei erreparatu behar zaiela, euskararen ezagutza eta erabilera handia duten udalerriek: udalekin-eta elkarlanean, egiaztariak lortzeko bideak landu daitezke eremu horietan.

Aurrerabideak egin dituzten enpresek, aurreratuenek ere, euskararen inguruan lortutako «estatus» horren defentsa irmoan jardun behar izaten dute, Arrizabalagak azaldu duenez, orekari beti, amiltzeko arrisku handiekin. «Etengabe aritu behar dute zirikatzailen lanetan: zuzendaritzarekin, lehendakariarekin, langileekin... Etengabe hor arreta jartzen, bestela erori egiten baita. Izan ere, ez da eroso, ez da errazena enpresa batentzat: ez dio bat-bateko etekinik ematen. Ez gara bizi euskarazko itsaso batean, eta erdal inguruan bizitzeak eramaten gaitu ez itozteko ahaleginetan bizitzera». Eta saltoki txikietan-eta usu zailagoa da egoera. «Ostalaritzan, adibidez, gero eta zailagoa da euskaraz artatuko zaituzten taberna eta jatetxeak aurkitzea».

Arrizabalagak uste du batasuna falta dela erakundeen artean, propio eremu sozioekonomiko pribatua euskalduntzeko erronkari erantzuteko. «Mahai bat» nahi luke, handia: administrazioa, enpresak, sindikatuak, kontsumitzaileak eta euskalgintza solasean nahi lituzke han, alor horretan zer egin aztertzeko. «Hori ezinbestekoa da». Langileak euskalduntzeko sistema sendo baten «falta» ere ikusten du. «Ez gaude prest; ez dago sistemarik lan mundua euskalduntzeko».

Argi du egungo ziurtagiri ereduak bateratu egin beharko direla batasunaren bidean, «homologazioa» helburutzat hartuta. Alde horretatik, irmo defendatu ditu Bai Euskarari ziurtagiriak: «Merezi dute aitortza». Eredu hori aitzindaria izan zela esan du, erreferentziakoa, Euskal Herri osoan zabaldua dagoen sistema bakarra dela, eta «eraginkorra» dela, gainera. Egun «egokitzapen» guztiak eginda dauzkate bateratze horretarako, eta aurrera ateratzea espero dute. Eske horren harira, urteotan «lankidetzaren» bidean eman diren aurrerapausoak nabarmendu eta goratu nahi izan ditu Dobaranek ere. Eta horra emaitza bat: *Harrobi* diploma Bai Euskarari elkarrekin kudeatzen du egun.

«Hormak» eraisten

Baikorra da Dobaran hartu duten bideari begira: «Enpresen jarrera aldatzen ari da;



«Bezeroek askotan ikusten dute atzerriko hizkuntzak erabiltzen direla, eta euskara ez»

AGURNE GAUBEKA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria

«Enpresen jarrera aldatzen ari da; euskara ez da horma bat: ari dira integratzen beste alor batzuk integratzen dituzten bezala»

MIREN DOBARAN

Hizkuntza Politikako sailburuordea Jaurlaritzan

«Ez da eroso, ez da errazena enpresa batentzat: ez dio bat-bateko etekinik ematen»

IBON ARRIZABALAGA DE MINGO

Bai Euskarari elkarteko zuzendaria

euskara ez da horma bat, eta ari dira euskara integratzen beste alor batzuk integratzen dituzten bezala. Berdintasuna ere integratzen ari dira, adibidez, baina ez horretarako lege bat dagoelako bakarrik, presioa dagoelako baizik». Era berean, uste du enpresek «balioetan oinarritutako proiektuak» garatu behar dituztela «talentua» erakartzeko bidean, eta hor euskara txertatzea ilusio pizgarri izan daitekeela askorentzat. «Baina laguntza behar dute». Gazte euskaldunak —eskolan euskalduntutakoak horietako asko— lan merkatura heltzen diren heinean prozesuak errazagoak izango direla uste du, baina oraindik ere eskua estutu behar zaiela enpresei: bakarrik senti ez daitezkeen. «Ezagutza daukan belaunaldi bat kudeatu behar da, eta halakorik ez daukan bat; egundoko lana egin behar da hor».

Ostatu eta saltoki txikietan ari diren langile asko migratzaileak direla aintzat hartuta, horiek ere euskarara hurbiltzeko bideak errazten ari dira, Dobaranek adierazi duenez. Jaurlaritzak oraintxe bi aste aurkeztu zuen, adibidez, euskara online ikastea errazteko asmoz sortutako plataforma berria: Ingura. Haren bidez, heldu den urtean «ia doakoa» izango da A1 maila ikastea. Halakoak eskaintzeko konpromisoa badagoela esan du, eta jarraitu egin behar dela.

Arrizabalagak argi du «kontzientzia» ere landu behar dela, herritarrena, euskara gero eta esparru gehiagotan erabil dadin: «Guztion esku dago». Baina lege esparru sendoagoa ere eskatu du. «Hemen euskara eskatzen ez bada, non eskatuko da?».



479

BIKAIN ZIURTAGIRIDUNAK.

2008an banatzen hasi zenetik, urtero ematen ditu Eusko Jaurlaritzak Bikain ziurtagiriak. 479 entitatek jaso dituzte orain arte. Hiru maila dituzte hemen ere: oinarritzako ziurtagiriak, tartekoak eta goi mailakoak. 84 izan dira mailarik apalenekoak, 191 tartekoak, eta 204 maila gorenekoak. Alor publikoan banatu dira ziurtagiriak %26, eta pribatuan %73,9. Azken alor horretan, gehienak kooperatibak dira: 132.

SERIEA | *Lan eta bizi euskaraz (II)*

EGUNeko GAIA

Hamaika zio euskaraz aritzeko

Zerbitzua hobetzea, euskararekiko atxikimendua izatea, lan eremu egokiago bat eskaintzea... Askok dira enpresa eta entitate pribatuek euskararen aldeko urratsak egiteko dituzten arrazoibideak.

Testua **ARANTXA IRAOLA**



Askotarikoak dira eremu sozioekonomikoan eragileek euskara hautatzeko dituzten zioak. Arta hobetzea, balio jakin batzuk sustatzea, bereizgarri bat izatea... Hona egindako bidea egiaztatzen du Bai Euskarari eta Bikain ziurtagiriak eta Harrobi diploma lortu dituztenen hainbat esperientzia:

ANER GARMENDIA
EGA Master-eko zuzendari nagusia

«Uste dugu honela enpresa erakargarriagoa dugula»

EGA Master enpresatik mintzo da Aner Garmendia. «Familia enpresa bat da; aitak sortu zuen, duela 50 urte». Jarduera industrial

dute: erremintak egiten dituzte, energiaren eremurako bereziki. Mundu zabalera begirako lantoki bat dira: ekoizten dutenaren %85 esportatu egiten dute. Gasteizen dute egoitza nagusia, 85 langilerekin. Gainerakoak atzerrian daude. Hala ere, urteak daramatzate euskararen aldeko urratsak egiten, eta, besteak beste, Bai Euskarari ziurtagiri bat dute: hastapeneko. Euskararen aldeko «sentimendu» batek bultzatu ditu horretara. Baina beste argudio bat ere badu Garmendiak: «Iruditzen zaigu honela enpresa erakargarriagoa dugula».

«Lanera hona datozenei eskaini nahi diegun aukera bat da euskara», erantsi du. Arabako errealitate soziolinguistikoa ondo ezagutzen dute; badakite euskara eskolan jasotzen dutela gazte askok, baina gero lan mundurako urratsa egitean galdu egiten dutela sarri euskaraz aritzeko era,

eta ahuldu egiten dela horrela hizkuntza gaitasuna. Alde horretatik, langileei euskaraz jarduteko aukerak emateak enpresari aparteko izaera ematen diola uste dute, eta nolabait ere langileek enpresaren bidez jasotzen duten «soldata emozionalaren» parte bat dela hori. ●

NORA GURRUTXAGA
Prozesu eta Kudeaketa burua
Vicomtech Fundazioan

«Lortzen dugu jendeak ikasteko grina izatea»

Irabazi-asmorik gabeko zentro teknologikoa da Vicomtech. «Gure bokazioa da inguruko enpresen lehiakortasuna hobetzea», azaldu du zentroko Prozesu eta Kudeaketa buru Nora Gurrutxagak. 2001etik ari dira. Miramonen dute egoitza nagusia, Donostian.

250-300 ikertzaile ari dira zentroan, mundu osokoak. «Sortu ginenetik egon da antolamendu barruan euskararen presentzia», nabarmendu du Gurrutxagak. 2010ean ebatzi zituzten, era antolatuan, lehen politikak euskara sustatzeko bidean, eta 2014an lehen euskara plana egin zuten. 2021ean autodiagnostiko bat egin eta gero, Bikain ebaluazio prozesuan sartu ziren. «Interesgarria» iruditzen zaio «erreminta» Gurrutxagari. Egindako lanaren «aitortza» gisara ere halakoek garrantzia dutela onartu du. Zilarrezko Bikain dute 2022tik.

Ingelesa zentroko hizkuntza nagusia izatea ez da arazo euskararen bidean sakontzeko. «Hemengo zentro teknologiko bat gara. Gure kultura eta hizkuntza sustatzea nahi dugu». Eta tresnak eskura dituzte euskara beti lehen lerroan izateko: «Gure kudeaketa erreminta guztiak

euskaraz eta gaztelaniaz daude». Era berean, ikertzaileen karrera profesionala bideratzeko orduan eskatzen diren «gaitasunetan» aintzat hartzen dute euskara, eta ikasteko aukera ere ematen dute, lanorduetan. Eta ikertzaile askok egiten dute hautua. «Horietako asko atzeritarrak dira», azaldu du Gurrutxagak. Euskara ageriko eginda, gogoia pizten dietela uste du. «Lortzen dugu jendeak ikasteko grina izatea». ●

IZASKUN URRUTIA
APEZETXEA
Kide aholkularitzako arduraduna

«Euskaldun bezero asko guregana etortzen dira»

Kide aholkularitzatik ari da Izaskun Urrutia: «Kontabilitate fiskala eta laborala eskaintzen duen aholkularitza euskaldun bat



← Bai Euskarari ziurtagiria lantoki batean — ENDIKA PORTILLO / FOKU

↑ Langile bat egiaztagiriaren artean Bikain ziurtagiaria erakusten — ANDONI CANELLADA / FOKU

gara, hots, enpresa eta partikularrei aholkularitza juridiko eta ekonomikoa eskaintzea da gure helburua». Abokatu, ekonomialari eta bestelako profesionalak ari dira lantaldean: bederlatzi lagun. Leitzan dute bulego bat (Nafarroa); bestea Donostian. Bai Euskarari-ren ziurtagiri gorenarekin: «Zerbitzua eta lana euskaraz».

Aholkularitza martxan jarri zutenetik euskararen aldeko hautua argia izan zela esan du Urrutiak. «Lankide euskaldunak gara, eta hasieratik oso argi genuen eman nahi genuen zerbitzua euskaraz izanen zela». Baina ez da lan samurra. «Administrazio publikoaren harremanak euskaraz izatea oso zaila da, ogasunekin adibidez, edota Gizarte Segurantzarekin», azaldu du. Trabak dakartza horrek. «Dokumentuak euskara soilean edukitzea ia ezinezkoa da. Adibidez, kontratuak eta nominak. Ez dago aukerarik euskaraz

inprimatzeko, eta guk programa berezi bat dugu, non euskaraz egin eta inprimatzen dugun eta horregatik gehigarri bat ordaintzen dugun; hau da, programak euskaraz inprimatzeagatik ordaindu egiten dugu! Izugarria da!». Gipuzkoan «lan guztia» euskaraz egitea errazagoa dela onartu du. Zailtasunak zailtasun, negozioarentzat ona dela uste du: «Euskaldun bezero asko guregana etortzen dira».

SILVIA SESMA NAZABAL
Kaxeta liburu dendako jabea

«Euskaldunak garelako egiten dugu»

Etxarri-Aranatzen dago Kaxeta liburu denda, Nafarroan. 2010ean hartu zuen Silvia Sesma senarrarekin, eta hasieratik hasi ziren euskararen aldeko hautuan. «Ez

da erraza, baina ari gara gauza garrantzitsuak lortzen». Beste etxe askotan bezala, haien ere gaztelaniaz egiteko joera zuzartua zutela aitortu du, baina hori «aldatzen» ari direla. Bai Euskarari-ren ziurtagiri gorenarekin dute.

Dendan «lehen hitza» beti euskaraz da. «Telefonoa hartzean ere bai», azaldu du Sesma. Eta jartzen dituzten «kartelak-eta» ere euskaraz dira. Hornitzaileak bertakoak direnean, euskaraz aritzen dira. Saltzen dituzten liburu asko euskarazkoak dira, halaber. «Batez ere, haurrentzako liburuak». Bide berean segitu nahi dute. «Ez dugu ikusten ona edo txarra den. Gu horrelakoak gara. Herria ere nahiko euskalduna da. Eta guk ere hobetu nahi dugu horregatik, euskaldunak garelako. Euskaldunak garelako egiten dugu, merezi duelako». Prozesu bat dela esan du: dena hartzen du. «Neuk nabaritzen dut, euskara gero eta gehiago erabiltzen dut».

BRICE MORIN
Atabal aretoko arduraduna

«Zailena da sare sozialetan egunerokoan euskaraz aritzea»

Atabal 2005en sortu zuten, Biarritzen, Lapurdin. Kontzertuak-eta emateko eremu zabal bat da. «Musika eskola bat ere badugu, 450 ikaslerekin», azaldu du Brice Morinek bertatik. 11 langile ari dira, eta 11 irakasle. «Euskara du bihotzean», azaldu du Morinek: «Hastapenetik, euskara beti izan da Atabalen». Egitaraua-eta antolatze orduan kontuan hartzen dutela esan du. Euskararen normalizazioaren bidean ari dira Bai Eus-

karari elkarteari esker, besteak beste. Hastapeneko ziurtagiria dute gaur egun: Bidean. Langile denak ez dira euskaldunak, eta horrek zailtzen du prozesua. Ostaturia dute, eta han egoten den langileak badaki. Txarteldegikoak ere bai. Jendearekin harremanak duten postu horiei erreparatzen saiatzen dira, bereziki. Ikastetxe elebidunekin-eta harremanak dituzte, eta ikastolekin ere bai.

Itzulpenak-eta egiteko Bai Euskarari-rekin lanean jarduten dutela esan du Morinek, eta laguntza handia ematen diela horrek. Askotan, unean uneko erantzunak ematea, ordea, ez da erraza. «Zailena da, adibidez, sare sozialetan egunerokoa euskaraz egitea», azaldu du. «Lan bat da».

ALEX SANTISO
Gaimaz enpresako Erosketa arduraduna

«Ikusi genuen kompetentzian batzuk bazutela ziurtagiria»

Gaimaz enpresan bi urte daromatza Alex Santisok, erosketen arduradun. Eraikuntza enpresa bat dira, Bizkaiko: Markinan dute egoitza. «Eta negozioaren %90 Bizkaian egiten dugu». Lan publikoak izaten dira gehienak: %90. «Gure eskualdean euskaraz egiten dugu gehienok». Hein batean, horrek bultzatu zituen Bai Euskarari ziurtagiria lortzera. «Bulegoetan %80k euskaraz egiten dute». Ziurtagiriaren bigarren maila lortu dute: zerbitzua euskaraz ematen dutela egiaztazen duena. Esperientzia «ona» izan dela esan du Santisok. Hutsuneei erreparatzeko era izan zuten aurrez egin zuten ebalua-

zioan, eta hilabete eta erdian lortu zuten egiaztagiria. «Ez da izan esfortzua. Euskaraz aritzen gara. Dokumentazio aldetik gabezia batzuk genituen, eta helburua izan zen ele bitan jartzea». Horra egin behar izan zuten zerrrenda: «Aurrekontua, faktura eta gogobetetasun inkesta ele bitan jarri, eta katalogoa euskaraz».

Herri lanetan jarduten dute, batez ere, eta etorkizunera begira ziurtagiriak ekar ditzakeen onuratan ere pentsatu dute. «Gure ustez mesedegarria izango da; ez gaur, baina urte batzuetan lehiaketetan-eta mesede izango da ziurtagiria izatea», iragarri du. Beste ziurtagiri batzuk eskatzen diren eran, euskara ere «baloratu» dela uste dute. «Eta ikusi genuen kompetentzian batzuek bazutela ziurtagiri hau, edo Bikain». Hortik egin zuten galdera: «Zergatik ez dugu hori lantzen?».

IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA
Eragintza fundazioko zuzendaria

«Sistematizazioan aurrera egiteko hainbat pauso eman ditugu»

Eragintza fundazio pribatu bat da, eta helburu nagusia du buruko osasunaren esparruan arazoak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratze prozesuetan laguntzea. Bilbon du egoitza, eta hamasei behargin ditu. Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen Harrobi diploma lortu dute. Oraindik Bikain ziurtagiria lortzeko aski gaitasun ez izan arren euskararen normalizaziorako bidean aurrera egin nahi duten entitateentzat dago pentsatuta propio diploma hori, eta berentzat aski baliagarria izan dela esan du Eragintza fundazioko zuzendari Izaskun Landaidak: «Euskararen esparruan konpromisoa beti egon da, baina diploma lortze aldera sistematizazioan aurrera egiteko hainbat pauso eman ditugu».

Lanerako abiapuntu antzeko bat izan dela esplikatu du: «Bikain ziurtagiria oso urrun ikusten genuen, eta diploma guretzat hauspoa izan da, eta aurrera jarraitzeko indarra eman digu. Pizgarria izan da». Bidean aurrera segitzeak berebiziko garrantzia duela argi du. Erabiltzaileak dira horretarako motibo bat: «Askok euskara dute ama hizkuntza; benetan eskertzen dute jasotzen duten arreta euskaraz denean». Eta «kalitatezko kudeaketaren» bidean aurrera egitea da beste arrazoi bat: «Euskararen kudeaketan aurrera egiteak erakunde hobea egiten gaitu».

SERIEA | *Lan eta bizi euskaraz (eta III)*

ELKARRIZKETA

«Euskararen hizkuntza politika oso periferikoa da»

Iraitz Perez de Goldarazena eta Rober Gutierrez. Euskara lan munduan nahi duen enpresa bateko burua da Perez de Goldarazena; tankerako enpresak sustatzen jardun du Bai Euskarari-n zuzendari egin dituen urteetan Rober Gutierrezek. Bat datoz: ahula da egoera.

Testua ARANTXA IRAOLA



Hogei urte egin ditu Rober Gutierrezek (Gasteiz, 1970) Bai Euskarari elkartearen zuzentzen: euskaraz jarduteko urratsak egiten dituzten enpresen ziurtagiriak kudeatzen, eta prozesu horretan aurrera egiteko baliabideak eskaintzen. Utzi berria du kargua. Teknologia berrien arloko Oreka IT enpresako zuzendari nagusia da Iraitz Perez de Goldarazena (Gasteiz, 1979). 2009an enpresa martxan jarri zutenetik izan du helburuen artean euskaraz tokia izatea laneko martxan. Gasteizko enpresa bat ziren orduan; Donostian, Bilbon, Iruñean eta Bartzelonan egoitzak dituzte orain. Hazi egin dira. Euskararen aldeko hautuan galdera berriak sortu dizkie horrek. **BERRIAK** egin zion Rober Gutierrezzi Bai Euskarari-n egin duen lanaren balorazio elkarrizketarako enpresabururen batekin elkartzeko proposamena, eta Perez de Goldarazena hautatu zuen mintzakide. Hau da emaitza.

Oreka ITn zerk bultzatu zintuzten euskararen aldeko hautura?
IRAITZ PEREZ DE GOLDARAZENA:

Enpresa sortu genuen hiru bazkideetatik bi euskaldunak ginen. Bi gasteiztarren artean euskaraz mintzatzen ginen, eta normala izan zen hasieran; lehen hautaketa prozesuetan espresuki bilatu genuen jende euskalduna. Gero, euskara talde bat sortzen hasi ginen, Bai Euskarari ziurtagiria atera genuen, eta nik Bai Euskarari elkartearen zuzendaritzan ere jarraitu dut. Euskara plan bat ere egin genuen gero: gorako joera bat izan genuen hor. Nik uste dut joera hori pandemiarraino heldu zitzaigula, pandemiatik hona kostatzen ari zaigu geneukanari eustea, eta uste dut poliki-poliki beherantz goazela. Bi faktore aipatuko nituzke. Bat, Bartzelona. Bistan dago: Bartzelonan jendea izateak euskararen tratamenduan mugarririk bat markatu du, eta zaila da guretzat orain nola funtzionatuko dugun jakitea, hizkuntzen kudeaketa batera joan behar dugulako, eta ez euskararen kudeaketa batera. Bigarrena da, eta hau da gehien kezkatzen nauena, aspaldian etortzen den jende gaztearen artean gutxiago daukagula aukeran euskaraz lan egiteko gaitasuna edo prestutasuna. Hona etortzen da jende asko euskaraz dakiena, B2 maila duena, edo behintzat hori jartzen du curriculumetan, baina gero ez dira gai

euskaraz elkarrizketa bat egiteko, edo gaitasun hori izanda ere, lehenesten dute gaztelaniazko harremana izatea inguruarekin. Eta ez naiz ari Gasteizi buruz; hau arazo orokortu bat da.

Komunak dira horiek beste enpresa askotan ere?

ROBER GUTIERREZ: Beste enpresa zenbaitetan ere gauza bera gertatzen ari da: ikusten ari dira goia jo dutela, eta zail egiten zaiela sabai hori puskatzea. Berak aipatu du atzerako joera bat nabari dela. Izan daiteke. Nik botila erdi huts edo erdi beteta dagoen galdetze horretan uste dut erantzun behar dela botilari zuloak ateratzen ari zaizkiola. Teorian irabazita zeuden eremu batzuk galtzen ari gara. Igual besteren bat ari gara irabazten, baina jarraitzen dugu galtzen. Nola egin behar diogu aurre horri? Aipatu dugu arazo handi bat; teorian euskaraz trebatutako belaunaldi bat, edo belaunaldi horietako batzuk, ez dira gai euskaraz aritzeko lan eremura joaten direnean. Hori kezagarria da. Horrek esan nahi du aurreko fase horretan zerbaitek ez duela funtzionatu, eta nik ez dut ikusten hor konponbiderik jartzen ari denik arazo horri buelta emateko. **Zer behar duzue euskararen normalizazioaren bidean ari zareten enpresek?**



«Sarietara frustrazioa sortzen didate; aurpegi garbiketaren esparruan mugitzen diren gauza bat direla uste dut»

«Euskaldunok erosi dugu geurea dela munduko hizkuntzarik zailena. Azkenean, konplexuz beteta gaude»

IRAITZ PEREZ DE GOLDARAZENA

PEREZ DE GOLDARAZENA: Ez badugu euskara erdigunerago ekartzeko, eta euskararen kudeaketan ez baditugu arauak aldatzen, nekez egingo dugu aurrera. Esaterako, administrazio publikoekin lan egiteko orduan, zergatik baloratzen dira berdin zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna demostra dezakeen enpresa bat eta euskararen inolako kudeaketarik egin ez duen enpresa bat? Hortik abiatu beharko genuke. Baina gaur egungo errealitate triste da zuk Irunen edo Gasteizen enpresa bat sortzen baduzu euskararekiko ez duzula inolako betebeharririk, eta gainera merkatuak ez dizula eskatuko modu naturalean hori. Orduan, militantziaren esparruan geratu den gauza bat da, euskal komunitate kontzientziatu bati eragiten diona.

Hein batean, pertsona jakin batzuen borondatearen arabera, koa da mugimendu hau...

GUTIERREZ: Hori da. Eta eskerrak horiei. Nik nire esperientziak ikusi ahal izan dut enpresa batzuk ari direla urratsak egiten. Aholkularitzak ere ari dira izugarritzko lana egiten: ikertzen, berritzen, metodologia erakargarriak sortzeko, eta enpresei eskaintzeko... Administrazio batzuk ere ari dira proiektu batzuk bideratzen enpresa munduan euskara sustatu



← Iraitz Perez de Goldazarena eta Rober Gutierrez, elkarrizketan. ENDIKA PORTILLO / FOKU

↓ Bai Euskarari ziurtagiriaren ikurra Oreka IT enpresan. ENDIKA PORTILLO / FOKU



Euskararik ez dugu ikasi beharko, zeren eta euskara, gainera, oso zaila da...». Eta ez da egia; edozein hizkuntzatan oinarritzko komunikazio gaitasun batzuk izateko, 900 ordu ikasi behar dituzu: hori kuantifika daiteke, antola daiteke, eta plan batean jar daiteke.

Onurak zein dira?

PEREZ DE GOLDARAZENA: Beti esan dut oso errentagarria atera zaigula euskararen kudeaketa. Bidean bezero euskaldunak topatu ditugunean, euskaraz konfiantza lortzea errazagoa izan da. Gainera, gure lehiakideengandik bereizteko ezaugarri naturala izan da, eta gure lehiakortasunean eragin duen faktore bat, enpresaren hazkunderekin zerikusia izan duena. **Jaurlaritzak oraintxe, adibidez, Ingura aurkeztu du, euskara online irakasteko. Administrazioa ere ari da hainbat eratan...**

GUTIERREZ: Bai, baina administrazioak enpresei zer eskainiko die, eta zer eskatuko die? Horri buruz ez dute hitz egiten. Sustapenaren bidean jarraitzen dute, eta oso gutxi gastatuta: aurrekontua oso murrizta da.

Enpresek ere administrazio indartsuagoa nahi zenukete?

PEREZ DE GOLDARAZENA: Nik uste dut alde horretatik badaudela bi moral, eta oso arriskutsua dela hori, behintzat guk bizi izan duguna. Joan gara Gasteizko alkateekin eta Arabako Diputazioko

agintariekin sariak jasotzera euskarari ematen diogun trataeragatik, eta gero, adibidez administrazio horietako lehiaketa publiko batera euskaraz joatea kimera hutsa da. Are gehiago, guk euskaraz egingo bagenu eskaintza bat, haiek itzuli egin behar lukete gartzelaniara baloratu ahal izateko. Beraz, niri sarietara frustrazioa sortzen didate; aurpegi zuriketaren esparruan mugitzen den gauza bat direla uste dut. Egiten diren hizkuntza politikak aldatu behar ditugu. Nik askoz nahiago dut hurrengo lehiaketa publikora banoa norbaitek baloratzea zenbaterako ahalmena dudana euskaraz zerbitzua emateko, puntutxo xume txiki batekin bada ere... Horrek, niretzat, jaso ahal ditudan sari guztiak bano gehiago balio du. Baina hori ez da gertatzen.

GUTIERREZ: Hori ez dago sistematizatuta administrazioan. Administrazioa ez da eredugarria zentzu askotan. Enpresak kontratatzen ditu, lizitazioak atera, baina gero lana ez du euskaraz egiten, eta euskaraz lan egiten duten enpresak ez ditu behar bezala baloratzen. Zenbait lizitaziotan puntuak ematen dira Bikain edo Bai Euskarari izateagatik, baina ez dago sistematizatuta administrazio guztietan, lizitazio guztietan, sail guztietan. Zergatik? Euskararen hizkuntza politika ez dago zentroan: oso periferikoa da. ●

ahal izateko... Baina denak dira urrats bakanak; bakoitza bere aldetik ari da, eta ez da lortzen horien arteko elkarlanik. Akordio bat behar da, eta sistema bat behar bezala egituratzea. Horren inguruan pentsatu behar da. Igual alor sozioekonomikorako behar da erakunde bat kezka hori koordinatuko duena, arazo hauei irtenbidea ematen saiatuko dena.

Egin daiteke aurrera egungo eran, legezko betekizunak ezartzen baino gehiago konbentzimenduak bilatzen?

GUTIERREZ: Ikusten ari gara iristen ari garela iristen ari garen mailara. Hori gairaz, nik uste dut behar dela pizgarriren bat. Pizgarri bat izan daiteke legea ukitzea. Egun zein dira betebeharren bat duten enpresak? EAEn 250 langiletik gorako enpresak, fakturazioa ez dakit zenbait milioitik gorakoa dutenak, ingurune soziolinguistikoki jakin batzuetan edo hiriguneetan daudenak... Beste guztiek ez dute inolako betebeharririk. Nafarroan ez dago horri modua emango dion legerik, Ipar Euskal Herrian ere ez...

Eta legeak dioena betetzen da?
GUTIERREZ: Argindar konpainiek eta gutxienezkoak betetzen dute. Fakturak eta bi hizkuntzatan jasoko dituzu etxean. Baina deitu call center batera, ea lehen



«Denak dira urrats bakanak, bakoitza ari da bere aldetik, eta ez da lortzen horien arteko elkarlana»

«Confebaski ez zaio ezer eskatzen hizkuntza kudeaketari dagokionean, eta Confebask ere bada parte»

ROBER GUTIERREZ

hitza euskaraz den, edo joan Inditex dendako megadenda batera. Hor euskaraz artatuko zaituzte? Esango nuke ezetz. Legea ere ez da betetzen ari, eta txarrena da ez dagoela inolara legea beteko dela bermatuko duenik; administrazioa bera ez da arduratzen horretaz. Eta hizkuntza politika kudeatzen duen saila, Jaurlaritzan, adibidez, Kultura Sailean dago. Eta ez da hitz egiten industrian izan behar den hizkuntza politikaz, edo beste departamentuetan nola jokatu behar den hizkuntzekin: ez da horretaz hitz egiten. Hori da euskarakoentzat, euskalgintzarentzat. Confebaski ez zaio ezer eskatzen hizkuntza kudeaketari dagokionez, eta Confebask ere bada parte bat honetan.

Langile kualifikatuak lortzeko zailtasunak gaiztotu du egoera?

PEREZ DE GOLDARAZENA: Uste dut gezur handi bat sinistu dugula. Badirudi atzerritik etortzen den pertsona batek izugarritzko ezintasuna izango duela euskara ikasteko, zeren eta euskaldunok erosi dugu, edo saldu digute, geurea dela munduko hizkuntza zailena. Uste dut konplexuz beteta gaudela. Alemaniara lanera doan pertsona bati ez zaio burutik pasa ere egiten alemana ez ikastea. Hemen, ordea, guk kanpotik etortzen direnei esaten diegu: «Lasai.

SOLOKOETXE BHI
Bilboko Alde Zaharreko ikastetxea

D eredia

BATXILERGO MOTAK:
- GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK
- ZIENTZIAK eta TEKNOLOGIA

ATE IREKIAK
apirilaren 10ean
18:30ean

Solokoetxe 17 - 48006 Tel.: 944.280.134
015077aa@hezkuntza.net www.solokoetxebhi.hezkuntza.net